MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA

FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

# Enpresa Zientzietan Diplomatura
# +
# Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan Lizentziatura, 2. zikloa




MONDRAGON CORPORACION COOPERATIVA

Entitate laguntzailea
Entidad patrocinadora

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



## Oñatiko Campusa

Larraña, 16
20560 OÑATI
(Gipuzkoa)
tel. 943 71 80 09
faxa 943 71 81 62
eteo@eteo.mondragon.edu



## Bidasoako Campusa

Ducourau Jauregia
Hendaia, 8
20301 IRUN
(Gipuzkoa)
tel. 943 63 91 29
faxa 943 66 70 22
bidasoa@bidasoa.eteo.mondragon.edu

MONDRAGON UNIBERTSITATEAn bere garaiarekin eta gizartearekin konpromisoa hartu duen unibertsitate bat aurkituko duzu, munduari eta etorkizunari zabalduta dagoena.

Unibertsitate gazte eta dinamikoa gara, kooperatiba izaerakoa, eta hasieratik, enpresa munduarekin duen harremana nabarmendu da bertan. Ikasle zarela, zure prestakuntza garaian zuzeneko harremanak izango dituzu enpresekin.

Enpresa Zientzien Fakultateak, Oñatiko eta Bidasoako bere campusen bidez, enpresa kudeaketan egun-egungo prestakuntza eskaintzen dizuegu. XXI. mendeko enpresaren eskaerei, etengabe aldatzen eta bilakatzen ari den enpresa horren eskaerei, erantzuna emateko diseinatutako prestakuntza da. Elkartasunez eta arduraz parte hartzeko pertsonak prestatzen ditugu, gaur egungo erakundeen errealitatearen arabera moldatzeko gai direnak. Egingo dituzten ekarpenen bidez, gizartearen garapenean lagunduko duten pertsonak.





>>>>>>>>>>>>>>Etengabe aldatzen ari diren gaur egungo
erakundeen garapenean esku hartuko duten
enpresa-kudeatzaileak prestatzen ditugu<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<





# Konpromiso sendoa
## hartu dugu...

pertsona ekintzaileekin

gizartearekin

4

XXI. mendeko erakundeekin

ikerketarekin

erabateko kalitatearekin

zure etorkizunarekin





# aurkibidea


0 sarrera 3

1 konpromiso sendoa hartu dugu... 4

2 gure fakultatea 6

3 zure neurrirako diplomatura 7

4 ikasketa plana 8

5 lan esperientzia ikasketa garaian 9

6 graduatu ondoko ikasketak 10

7 lanerako irteerarik onena 11

8 beste zerbitzu akademiko batzuk 12




# gure fakultatea

Enpresa Zientzietako Fakultatean 1960an ekin genion ibilbideari, Oñatin. Gipuzkoako hiribildu honek unibertsitatearen esparruan tradizio handia du; esate baterako, Sancti Spiritus Unibertsitatea ere bertan sortu zen, 1542. urtean.

2003tik, Enpresa Zientzien Fakultatean gure unibertsitate ikasketak Irunera era zabaldu ditugu, egoitza Ducourau Jauregian duen Bidasoa Campusera, hain zuzen.





Fakultate honen ezaugarri nagusienetariko bat enpresen esku hartze nabarmena da; hauek, askotan, Ikasketa Planen diseinuan bertan ere parte hartzen dute. Gure fakultatean Enpresa Laguntzaileen Foro bat ere badugu, eta unibertsitatean egunez eguneko jardunean enpresen parte hartzea gauzatzeko baliabide sendo bihurtu da. 38 enpresak parte hartzen duten foro horren helburua ikasleek Euskal Herrian nahiz atzerrian praktikak eta ikasketa amaierako proiektuak egingo dituzte eta enpresa zuzendariek irakaskuntzan edota ikasleak lan munduan sartzeko unean esku hartuko dutela ziurtatzea da. Horrez gain, foro horrek uneoro enpresen ehunari zein prestakuntza esparru eta ikerketa interesatzen zaizkion aztertzeko xedea ere badu.

Gure Etengabeko Prestakuntzak, ikastaroen eta master programen bidez bai ikasleei eta bai profesionalei etengabe eguneratzeko aukera ematen die.

Bestalde, Enpresa Zientzietako Fakultateko ikerketa taldeek enpresekin lan egiten dute ezagutzak, tresnak eta teknikak garatzeko, etorkizunean enpresen kudeaketa-jarduna izango dena osatu asmoz. Gure irakasleak enpresek eskatzen dituzten jakintza eremuetan ikerketak gauzatzeko gaitasun ezaguna duten irakasleak dira.

>>>>>>>>>>>>>>Lan-talde gazte, profesional
eta ondo prestatua
zure zerbitzura<<<<<<<<<<<<<<<<<<<<



# zure neurrirako diplomatura

Enpresa Zientzietan diplomatzen direnek enpresetan oinarrizko sailetan kudeaketa funtzioak garatzeko lanbide gaitasun aurreratuenak barneratzen dituzte. Curriculumeko bi ibilbideetariko bat aukeratuz, ikasleak bi arlo horietako batean espezializazio sakona bereganatuko du, eta kontuan hartu bi arlo horiek globalizazioak horrenbesteko indarra duen lan merkatu honetan zer-nolako eskaera duten:

– enpresa logistika eta garraioa
– nazioarteko merkataritza

Gainera, Enpresa Zientzietako diplomatura ikasiz, hizkuntza askotariko ingurune batean taldean lan egiten eta sormena garatzen ikasiko dute. Guztia metodo berritzaileak erabiliz eta punta-puntako enpresetan kasu errealak landuz. Enpresa ikuspegia ikaslearen mailara zabalduko da. Zeure neurrira.











# ikasketa plana

## 1. kurtsoa

- Finantza Kontabilitatea
- Mikroekonomia
- Enpresa Zuzenbidea
- Enpresa Estatistika I
- Enpresa Matematika I
- Enpresen Kudeaketari Aplikatutako Informatika
- Enpresa Matematika II
- Makroekonomia
- Enpresa Estatistika II
- Enpresa Ekonomia I
- Finantza Matematika
- Erakundearen Soziologia
- Ingelesa I
- Frantsesa I

## 2. kurtsoa

- Enpresa Ekonomia II
- Espainiako eta Munduko Ekonomia
- Kontabilitate Analitikoa I
- Merkataritza Zuzenbidea
- Enpresen Erregimen Fiskala
- Lidergoa eta Komunikazioa
- Merkataritza Zuzendaritza I
- Kontabilitate Analitikoa II
- Lan Zuzenbidea
- Ingelesa II
- Frantsesa II

### Esp.: Enpresa Logistika eta Garraioa

- Erosketa eta Horniketako Logistika
- Nazioarteko Garraioa
- Garraioaren Ekonomia eta Zuzenbide Erregimena

### Esp.: Nazioarteko Merkataritza

- Nazioarteko Ingurunea
- Nazioarteko Negoziazioa eta Kontratazioa
- Kanpo Merkataritzako Administrazio Kudeaketa

## 3. kurtsoa

- Merkataritza Zuzendaritza II
- Ingelesa III
- Frantsesa III
- Finantza Zuzendaritza
- Zuzendaritzako Trebetasun Tailerra
- Nazioarteko Finantzak
- **Ikasketa Amaierako Proiektua**

### Esp.: Enpresa Logistika eta Garraioa

- Biltegiratze eta Banaketa Logistika
- Garraioaren Zuzendaritza eta Antolamendua
- Industria eta Produkzio Logistika
- Logistikako eta Garraioko Joera Berriak
- Logistikari Aplikatutako Ingelesa
- Logistikari Aplikatutako Frantsesa

### Esp.: Nazioarteko Merkataritza

- Nazioarteko Logistika
- Kanpo Merkataritzako Eragiketen Finantzaketa
- Nazioarteko Zerga Arloa
- Merkataritzako Ingelesa
- Merkataritzako Frantsesa

Enpresa Zientzietako Diplomatura amaitu ondoren, beste bi urte eginda, ikasleak Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako Lizentziatura lortzeko aukera izango du, Bidasoako Campusean bertan. Gainera, hiru espezialitate izango ditu aukeran: Finantza Zuzendaritza, Merkataritza Zuzendaritza eta Erakundeen Kudeaketa.

| EE.ZZ. Diplomatura | + | Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura |
|---|---|---|
| 3 ikasturte | | 2 ikasturte |

# lan esperientzia ikasketa garaian

**Ikasketa amaierako proiektua**

Enpresek lan esperientzia duten eta enpresaren funtzionamenduaren berri ondo dakiten pertsonak eskatzen dituzte. Horregatik, ikasle guztiek ikasketa amaierako proiektua egiten dute enpresa batean, fakultateko irakasleen tutoretzapean. Ikasketa amaierako proiektua karreraren azken sei hilabeteetan egiten da, egun osoko jardunean.

**Praktikak**

Ikasleek ikasten ari diren bitartean enpresetan praktikak egiteko aukera ugari dituzte. Enpresen munduarekin dugun harreman zuzena gure Ikasketa Planaren ezaugarri nagusietako bat da.









# graduatuondoko ikasketak

Graduatuondoko prestakuntzan eskaintza zabala dugu, merkatuak eskatzen dituen arloetan. Gure ikastaroak, masterrak eta doktoretza programak bere prestakuntzan sakondu nahi duten lizentziatuei nahiz diplomatuei eta lanean diharduten profesionalei zuzentzen zaizkie.

- Enpresa Zuzendaritzako Masterra - MBA
- Finantza Zuzendaritzako Masterra – MFIN
- Enpresa Informazio Sistemetako Masterra – MSI
- Marketing Zuzendaritzako Masterra – MDM
- Banku eta Burtsako Masterra – MBB
- Garraio eta Hornikuntza Katearen Kudeaketako Masterra
- Enpresa Proiektuen Zuzendaritzako Masterra, MCCren laguntzarekin

- Enpresa Zergako Aditu Ikastaroa

- Enpresa Zuzendaritzako Doktoretza Programa







# lanerako irteerarik onena

Gure lan poltsa, praktikak -punta-puntako enpresetan egin ahal izango dituzu- eta ikasketa amaierako proiektua dira Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatuei lan munduan sartzerakoan mailarik altuena bermatzen dieten tresna bereziak.



<<<<Ikasketak amaitzen dituzten ikasleetatik
% 87,2 hasten dira lanean
lehenengo hiru hilabeteetan>>>>>>>>



caja laboral · copreci · eroski · grupo fagor · BBVA · grupo ulma · grupo danobat · cegasa · LKS · orkli · ateia · auzo lagun · azk taldea · bellota · bidasoa activa-bidasoa bizirik · bodegas y bebidas · calzanor · colegio oficial de agentes y comisionistas de aduanas · construcciones moyua · construcciones sukia eraikuntzak · egoki industrial norte · fagor electrodomésticos & gallardo ingenieria del embotellado · giroa · guitrans · hendaye manutention · herramientas eurotools · jose salvat · kide · lana · lautrans · oiarso · orona · reytrain · talleres mecánicos bianditz · tavex · transnatur norte · transova norte · urssa · zaisa · zelaira - alcampo irun



# beste zerbitzu akademiko batzuk

## liburutegia

<<<<<<<<60.000 liburuki baino gehiago,
datu-baseetara sarrera,
ordutegi zabala>>>>>

## programa akademikotik kanpoko jarduerak

<<<<<<<<kultur eta prestakuntza jarduerak,
kirola
eta aisia>>>>>>>>>>>>>>

## lan poltsa

<<<<<<<<lana bilatzen
lagunduko dizugu>>>>>>>>>>>>>>

## teknologia berriak

<<<<<<<<ordenagailu gela eta on-line plataforma,
ikasleen esku>>>>>>>>>>>>>>>>

## nazioarteko truke programa

<<<<<<<<osatu nahi al duzu
zure prestakuntza atzerrian?
gure babes osoa duzu>>>>>>>>>

